# CHANGE THINGS

## SARE SOZIALAK HERRITAR GLOBAL BIHURTZEKO ELKARRI KONEKTATUTA



# PRESTAKUNTZA IBILBIDEA



#ChangeThings #Aldatusareak

MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA Y COOPERACIÓN
aecid
Cooperación Española
VOLS voluntariatsolidari
BOSCO GLOBAL ONGD SALESIANA
JÓVENES Y DESARROLLO ONGD SALESIANA



**Egileak ordena alfabetikoaren arabera:** Bosco Global, Jóvenes y Desarrollo eta VOLS Ongetako EPDCG teknikariak. Ruben Esteban Alesón, Teresa Viles Mestres eta Vivian Rangel (Alfabetizazio mediatikoko eta hezkuntza estrategiako Maldita educa).

**Diseinua eta maketazioa:** GABMA
Argitalpen hau Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzarekin egin da, proiektu honen kontura: "Elkarren artean konektatutako gazteak 2030 horizontea duen herritartasun global-digitalaren alde, COVID testuinguruan". Argitalpen horren edukia "Jóvenes y Desarrollo"-ren erantzukizuna da, eta ez du ezinbestean AECIDen iritzia islatzen.

**Gazteak eta Garapena** kanpoko erakundea da, irabazi asmorik gabea, eta biztanleria ahularen garapena sustatzen du, arreta berezia eskainiz haur eta gazteei, Hezkuntzarako duten Eskubidea gauzatuz. Halaber, pertsonen konpromiso solidarioa sustatzen du gizartean aldaketak eragiteko.

**Bosco Global** salestar GGKE bat da, eta, hezkuntzaren bidez eta batez ere gazteak hautatuta, mundu bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta iraunkorragoa eraikitzen du. Don Boscoren prebentzio-sisteman eta guztion ongiaren bilaketan oinarritutako hezkuntza eraldatzailea lantzen du.

**VOLS** salestar GGKE bat da, eta hezkuntzaren arlotik giza sustapena bultzatzea du helburu; horretarako, eraldaketa eta justizia sozialerako mobilizazioa sustatzen ditu, iparraldeko nahiz hegoaldeko gizarteetan, bereziki gazteekin.

# AURKIBIDEA


**SARRERA** 4

Gure ikuspegia: 5

Nola erabili ibilbide hau? 7

**BLOKEA I: GORROTO-DISKURTSOAK ETA DESINFORMAZIOA** 11

Hasi baino lehen... 12

**Saioa 1: Gorroto hizkeraren sarrera** **13**

Jarduera 1. Escape Room: Mundua alderantziz 14

**Saioa 2: Gorroto-Diskurtsiak eta desinformazioa** **15**

Jarduera 1. Zer dira gorroto-diskurtsoak 16

Jarduera 2. Gorroto-diskurtsoetatik gorroto-delituetara 17

Jarduera 3. Desinformazioa identifikatzea 20

Jarduera 4. Buloak ikertzea 22

GEHIAGO SAKONTZEKO: Jarduera osagarria 23

**BLOKEA II: NARRATIBA BERRIAK ERAIKITZEA** **24**

**Saioa 3: Zer dira narratiba berriak** **25**

Jarduera 1. Narratiba berrien analisia 26

Jarduera 2. Zein gorroto-diskurtso landu nahi dugu? 28

**Saioa 4: Aldaketa-ekintzak planifikatzea** **29**

Jarduera 1. Aldaketa-ekintza baten egitura 30

Jarduera 2. Erantzukizunak eta zereginak banatzea 31

**BLOKEA III: KANPAINEN EZARPENA** **33**

**Saioa 5: Ekimena prestatzea eta inplementatzea** **34**

Jarduera 1. Abian jartzea 35

Jarduera 2. Inplementatzea 36

**Saioa 6: Ebaluazioa** **37**

Jarduera 1. Banako ebaluazioa 38

Jarduera 2. Mahaia jarri talde-ebaluazioa 39

**ERANSKINAK** **41**

Eranskina 1. Gorroto-diskurtso motak 42

Eranskina 2. Gorrotoaren Iceberg 46

Eranskina 3. Desinformazioaren 10 pertsonaia 47

Eranskina 4. Nola identifikatu buloak 48

Eranskina 5. Ez elikatu gorroto-diskurtsoak 50

Eranskina 6. Narratiba berrien analisia 51

Eranskina 7. Nire aldaketa-ekintzaren gaia hautatzea 53

Eranskina 8. Nola eraiki narratiba berri bat 54

Eranskina 9. Ekintza bat pertsona guztientzat 55

Eranskina 10. Aldaketa-ekintzak planifikatzea 56

Eranskina. Sare sozialen programazioa 57

Eranskina. Ebaluazioa 58

# SARRERA

Gorroto-diskurtsoak ugaritzen ari dira, bereziki aniztasunaren, genero-berdintasunaren eta pertsonen zirkulazio askearen (etnia, nazionaliatea edo jatorriarekin lotuta) aurka egiten dutenak, betiere desinformazioan oinarrituta eta sare sozialetan biralizatuta, eta horrek biztanleria ahulen eskubideen aurka jotzea bultzatzen du.

Proiektua NBEk Gorroto Diskurtsoaren inguruan duen Estrategian kokatzen da, eta proiektuaren ardatz nagusia da herritartasun global-digital arduratsua sutatzea, gorroto-diskurtsoak eta desinformazioa prebenitzearren, pandemiaren testuinguruan bereziki zabaldu egin dira-eta.

SAKATU HEMEN

Horretarako, gazteen eta hezitzaileen parte-hartzearekin, hainbat ekintza garatuko dira, Giza Eskubideekin konprometitutako herritarrak, berdintasuna defendatzea eta ingurumena babestea sustatzeko, COVID krisiaren egiturazko kausen eta GIHak lortzeak dituen inpaktuen inguruan gogoeta egiteko, edota narratiba berriak eraikiz arazo horiei ematen zaizkien erantzunak elkarren mendekoak eta globalak izatea sustatzeko.

Hauek dira proiektuaren **helburuak:**

- Gizarte baketsuak, zuzenak, inklusiboak eta erresilienteak, ekitatearekin konprometituak direnak, sustatzen laguntzea; pertsona ahulenen eskubideak defendatzea, babestea eta berreskuratzea 2030 Agendaren esparruan; eta, era horretan, COVID pandemiak areagotutako inpaktu sozial negatiboa murriztea.
- Gazteen eta hezitzaileen parte-hartzearekin, Giza Eskubideekin konprometitutako herritartasun global-digitala sustatzea, gorroto-diskurtsoak eta desinformazioa prebenitzeko, COVID krisiaren egiturazko arrazoiei eta narratiba sozialetan dituen inpaktuei buruz hausnartzeko eta erantzunak elkarren mendekoak eta globalak izateko.



# GURE IKUSPEGIA

Prestakuntza-ibilbide hau ezartzerakoan, eduki, jarduera eta ekimen solidarioen garapena honako hauek sustatzearekin lotzen dugu:

### GIZA ESKUBIDEEKIN KONPROMETITUTAKO HERRITARRAK

Beharrezkoa da gazteengan kontzientzia bat sortzea errealitatea identifikatzen ikas dezaten eskubideen urraketatik eta ez premiak detektatzetik. Horretarako, berriz, funtsezkoa da kausak interkonexio- eta holistika-izpiritu batetik aztertzea, errealitate globala eta tokikoa ulertu ahal izateko faktore ekonomiko, sozial eta kulturalen konplexutasunetik.

### BERDINTASUNA DEFENDATZEA

Berdintasunezko gizarte bat lortzeko, ezinbestekoa da generoa medio izaten jarraitzen duten desberdintasunak ulertzea. Modu horretan, beharrezkoa da berdintasunaren betaurrekoak jartzea, emakumeen eta neskatilen eskubideen ahultasunezko egoera berezia ulertzeko eta gizonen eta emakumeen artean harreman paritarioak eraikitzeko beharra ikusarazteko.

### GIHAK LORTZEA

Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) gizartean sortzen diren erronka nagusien ardatz egituratzaile bihurtzen ari dira. 2030 Agendan, Garapen Iraunkorreko 17 Helburu eta 169 xede daude. Helburu horiek “integralak eta zatiezinak dira, eta garapen iraunkorraren hiru dimentsioak biltzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumen-arlokoa”. Aplikazio unibertsalekoak dira, herrialde bakoitzeko errealitate, gaitasun eta garapen-maila ezberdinak kontuan hartuta eta haien politika eta lehentasun nazionalak errespetatuta. Tokiko inpaktuarekin edo inpaktu globalarekin, GIHek aukerak proposatzen dituzte herrialdeek eta gizarteek garapen-proposamen alternatiboak sor ditzaten, pertsona guztien bizitza hobetzeko, inor atzean utzi gabe.

### BAKEAREN KULTURA SUSTATZEA

Bakearen kulturak indarkeria baztertzen eta gatazkak prebenitzen dituzten zenbait baliok, jarrerak eta jokabidek osatzen dute. Besteak beste, arrazoiak identifikatzen eta arazoak konpontzen ahalegintzen da pertsonen, taldeen eta nazioen arteko elkarrizketaren bitartez, eta puntu oso garrantzitsu bat hartzen du kontuan; hots, giza eskubideak” (NBE 1999).

### INGURUMENA BABESTEA

Egun dugun krisi klimatikoak kontsumo-, garraio- eta ekoizpen-ohiturak aldatzea bultzatzen gaitu, bai ohitura kolektiboak, bai norbanakoarenak. Ingurumenarekiko bizikidetza iraunkorra garatzea da planetaren bilakaera bermatzeko modu bakarra.

SAKATU HEMEN

## KULTURARTEKO IKUSPEGIA

Kulturarteko ikuspegiarekin gaur egungo gizarteetan kultur aniztasuna dagoela onartu behar da, eta aniztasun horiek errespetu-oinarri bat izan behar dute mundu-ikuskera ezberdin, giza eskubide eta herritar gisa dituzten eskubideekiko. Gaur egun, hainbat kulturaren bizikidetza islatzen da eremu berean, izan fisikoa, politikoa edota soziala. Globalizazioaren aroan bizi gara. Mugak itxuragabetzen ari dira. Urrunekoa hurbil bihurtzen da. Ohartu gara besteen beharrak eta gureak ez direla oso ezberdinak eta eragozpen edo hesi kulturalak uste duguna baino errazago altxa daitezkeela, are gehiago interakzio digitaletik hitz egiten badugu. Modu horretan, prestakuntza-ibilbide honetan, kulturarteko ikuspegi batetik ikasteak duen garrantzia azpimarratzen dugu, gure metodologiaren barruan ikaskuntza hori kulturartekotasunaren bitartez aberastuaz.

## ELKARREKIKO MENDEKOTASUNAREN IKUSPEGIA COVID TESTUINGURUAN

Ekosistemen suntsiketak eta ingurune naturalaren ustiapenak ondorioak dituzte baita ere espezie batzuetatik besteetara jauzi egiten duten gaixotasunen hedapenean, eta etorkizunean pandemia berriak izateko mehatxua egiten digute. COVID-19ak utzitako belaunaldi anitzeko ikaskuntzen gainean gogoeta eginaz, lan-eredu bat proposatzen dugu, herritartasun aktiboa, arazo globalekin kezkatuta dagoena eta mundo zuzenago baten aldeko aldaketa-proposamenetan parte hartzen duena osatzean oinarrituta.



# NOLA ERABILI IBILBIDE HAU

Prestakuntza-ibilbide honen bitartez, aldaketarako, komunikaziorako eta/edo konpromiso sozialerako ekimenak jarriko dituzte abian gazteek beren ingurunean, Sare Sozialetan bakearen kultura sustatzearren, eta, horrela, mezu inklusiboen biderkatzaile bihurtuko dira, beste gazteek ere hausnartu dezaten talde ahulenen aurkako gorroto-diskurtsoei modu positiboan nola aurre egitearen inguruan.

## NORENTZAT DA?

Hezkuntza formaleko ikastetxeetako eta hezkuntza ez formaleko taldeetako 14 eta 20 urte arteko gazteak, inguruneetan inpaktu soziala sortzeko interesa dutenetakoak.

Irakasleak eta talde horietako hezitzaileak.

## HELBURUAK

- Herritar kritikoak eta errealitate globala ezagutzen dutenak osatzea, Giza Eskubideen ikuspegitik narratiba sortzeko gai direnak.
- Gazteen parte-hartzea eta konpromisoa areagotzea herritartasun global digital arduratsua sortzeko.
- Ikasteko esperientzia esanguratsua garatzea, eskubideen urraketa aztertuz eta identifikatuz.
- Gazteei babesa ematea proposamen eraldatzaileak eraikitzeko, beste gazte batzuk ere sentsibilizatzearren.

## EGITURA

Ibilbidea 50 minutuko bost saiotan egiteko moduan antolatu da, baina malgua izango da hezitzaileek beren denborara egokitu ahal izan dezaten, saio-kopuru gehiago egiteko aukerarekin, sakonago landu nahi badute eta edukia eta jarduera gehiago jorratu nahi badituzte.

## EDUKIAK

- **Gorroto-diskurtsoen prebentzioa:** kontzeptua, elementuak eta motak. Dibertsitatearen aurka erasotzen duten diskurtsoak, generoarekin eta etniarekin, nazionalitatearekin edo jatorriarekin lotuak.
- **Alfabetizazio mediatikoa: Sare Sozialen erabilera arduratsua: informazioa** informazioa bilatzea, aztertzea eta egiaztatzea; fact-checking, gezurrak eta desinformazioa.
- **Narratiba berriak:** tresnak eraikitzea aniztasuna sustatzekoe ta Giza Eskubideak defendatzeko. Trebetasun sozialak eta gatazken kudeaktea Sare Sozialetan.
- **Aldaketa, komunikazio eta konpromiso sozialeko ekimenen plangintza:** ekimen solidarioak diseinatzea eta ezartzea. Sareak eta aldaketa-agenteak sortzea.
- **Herritartasun digital-globala:** Giza Eskubideak, GIHak eta bakearen kultura Sare Sozialetan. Elkarrekiko mendekotasuna eta COVID krisiaren egiturazko arrazoiak

# FUNTSEZKO GAITASUNAK, DESKRIBATZAILEAK ETA ADIERAZLEAK

## HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA

| | |
|---|---|
| Idatzizko eta ahozko testuen edukia modu kritikoan interpretatzea | ▸ Testuaren edukia norberaren ezagutzen arabera interpretatzen du.<br>▸ Testuaren edukiaren gaineko inferentziak egiten ditu.<br>▸ Adierazpen diskriminatzaileak identifikatzen ditu<br>▸ Bere iritzia ematen du testuaren edukitik abiatuta. |
| Komunikazio-harremanetan era aktiboan eta egokian parte hartzea | ▸ Bat-batean esku hartzen du eta entzute aktiboa du. Exposa un punt de vista personal.<br>▸ Ikuspuntu pertsonala ematen du.<br>▸ Besteen esku-hartzeak eta txandak errespetatzen ditu, eta denboraren erabilera kontrolatzen du.<br>▸ Adierazpen diskriminatzaileen erabilera saihesten du. |

## MATEMATIKARAKO GAITASUNA ETA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO OINARRIZKO GAITASUNAK

| | |
|---|---|
| Datu zientifikoak erabiltzea eta maneiatzea, helburu bat lortu edo probetan oinarritutako erabaki edo ondorio batera iristearren | ▸ Galderak identifikatzen ditu, arazoak konpontzen ditu, ondorioak ezartzen ditu eta probetan eta argudioetan oinarritutako erabakiak hartzen ditu. |
| Zientziak, teknologiak, ingeniaritzak eta giza jarduerak naturan oro har duten eragina ulertzea | ▸ Badaki zein den giza jardueren inpaktua ingurunean eta hori zaintzeko eta babesteko jarrerak eta ekintzak hartzen ditu.<br>▸ Erantzukizuna agertzen du baliabide naturalak kontserbatzearen eta ingurumen-arloko gaien inguruan. |

## IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA

| | |
|---|---|
| Ezagutza eta gaitasun berriak hartzea, prozesatzea eta onartzea | ▸ Ikasteko jakinmina du eta ikasten aurrera egiteko galderak egiten ditu.<br>▸ Dituen indarguneak eta hobetzeko aukerak onartzen ditu. |
| Aurretiko bizitza- eta ikaskuntza-esperientzietan erabiltzea, ezagutza eta gaitasun berriak beste testuinguru batzuetan erabiltzeko | ▸ Bere esperientziatik abiatzen da errealitatea aztertzekoRelaciona allò que aprèn amb la seva pròpia experiència.<br>▸ Ikasitakoa bere esperientziarekin erlazionatzen du.<br>▸ Ikasitakoa orokortzen du eta hainbat testinguru eta egoeratan aplikatzen du. |

## GAITASUN DIGITALA

| | |
|---|---|
| Komunikaziorako eta arazoak ebazteko baliabide teknologikoak erabiltzea | ▸ Tresna eta aplikazio informatiko nagusiak ezagutzen ditu eta horiek behar bezala erabiltzen ditu. |
| Teknologia digitalak modu seguruan, kritikoan eta arduratsuan erabiltzea | ▸ Teknologia digitalen erabileraren abantailak eta desabantailak ezagutzen ditu.<br>▸ Datu pertsonalak, intimitate eta integritatea eta nortasun digitala babesteko portaera du.<br>▸ Ekoizpen arduratsuak eta sortzaileak sortzen ditu. |
| Bitarteko digitalen bidez lortutako informazioaren eta datuen balio, fidagarritasun eta inpaktuaren ikuspegi kritikoa garatzea | ▸ Iturri digital ezberdinetatik datorren informazioa modu kritikoan eta sistematikoan erabiltzen, alderatzen eta prozesatzen du<br>▸ Berarentzat eta/edo beste pertsonentzat kaltegarria eta/edo faltsua den informazioa ezagutzen du, eta ez du hori zabaltzen parte hartzen. |

## IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA

| | |
|---|---|
| Ezagutza eta gaitasun berriak hartzea, prozesatzea eta onartzea | ▸ Ikasteko jakinmina du eta ikasten aurrera egiteko galderak egiten ditu.<br>▸ Dituen indarguneak eta hobetzeko aukerak onartzen ditu. |
| Aurretiko bizitza- eta ikaskuntza-esperientzietan erabiltzea, ezagutza eta gaitasun berriak beste testuinguru batzuetan erabiltzeko | ▸ Bere esperientziatik abiatzen da errealitatea aztertzeko.<br>▸ Ikasitakoa bere esperientziarekin erlazionatzen du.<br>▸ Ikasitakoa orokortzen du eta hainbat testinguru eta egoeratan aplikatzen du. |

### EKIMENAREN ZENTZUA ETA IZPIRITU EKINTZAILEA

| | |
|---|---|
| Aztertzeko, planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko gaitasuna | ▸ Une egokietan aurre hartzen du eta lidergo eraginkorra egiten du.<br>▸ Ideia edo proiektua sortzen eta/edo onartzen du, proiektua planifikatzen du eta bideragarria den aztertzen du.<br>▸ Planifikatutako ekintzak gauzatzen ditu eta doikuntzak egiten ditu beharrezkoak baldin badira.<br>▸ Egindako ekintzak ebaluatu, komunikatu eta hobetzeko proposamenak egiten ditu. |

### KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPEN KULTURALAK GAITASUNA

| | |
|---|---|
| Adierazpen kultural eta artistiko ezberdinak espiritu kritikoarekin, jarrera irekiarekin eta errespetuz ezagutzea, ulertzea, estimatzea eta baloratzea | ▸ Kultura-aniztasuna eta adierazteko eta ulertzeko modu ezberdinak izatea aintzat hartzen ditu, norbera aberasteko eta bizikidetza kolektiboari laguntzeko eragile gisa, eta genero, arrazakeria edo gizarte arrazoiak medio diskriminazioa dakarren edozein alderdi baztertzen du.<br>▸ Norberaren gustuetatik urrun dauden adierazpen kulturalak edo artistikoak errespetatzen ditu. |
| Produktu artistikoak sortzea emozioak, bizipenak eta ideiak adierazteko, irudikatzeko eta komunikatzeko modu gisa | ▸ Ekoizpen artistikoak egiten ditu ingurunean dituen zalantza, kezka eta ideiei erantzuteko.<br>▸ Ideiak berregiten ditu, beste pertsona batzuen ekoizpenak aldatzen ditu, irtenbide ugari planteatzen ditu eta hainbat produktu artistikoren bitartez egoerak arazo bilakatzen ditu. |





# BLOKEA I

## Gorroto-Diskurtsoak eta desinformazioa

# HASI BAINO LEHEN...

Hezitzaileek nahiz gazteek banaka sartu behar dute esteka honetara,  QR bidez, eta agertuko den galdetegia bete behar dute.

Galdetegia betetzeko 15-20 minutu beharko dira.



# SAIOA 1:
# ESCAPE ROOM

## HELBURUA

- Gazteen arreta modu ludikoan erakartzea mezu diskriminatzaileak sortzean eta/edo zabaltzean arriskuan jartzen diren jarreren eta balioen inguruan, bereziki ingurune digitalei erreparatuta.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Saio honetan, gazteak escape room birtual batean sartuko dira, eta, bikoteka, zenbait proba gainditu beharko dituzte jolaseko pertsonaietako bat salbatzeko. Amaitzeko, taldeko hausnarketa gidatua egingo da jardueran landutako kontzeptu nagusiei buruz.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Materialak eta baliabideak
- Papera eta boligrafoa.

## ADIERAZPENAK

Hasi aurretik, ondorengo alderdiak kontuan hartuko dira:

- Bikoteka jokatzen da, eta beharrezkoa da gazteek elkarlana egitea hori gainditzeko.
- Komunikatu egin beharko dute. Online jokatuz gero, komunikatu ahal izateko aplikazioren baten bidez konekta zaitezke; esate baterako, bideodeiak (ez da beharrezkoa kamera izatea; audioarekin nahikoa da).
- Papera eta boligrafoa edukitzea gomendatzen da.

## JARDUERA 1.
## ESCAPE ROOM

(40 min)

Bikoteko kide bakoitzak bere mugikorraren bidez ondorengo QR -ra sartu behar du:

KLIKATU HEMEN

Behin web gunean dagoela, kide bakoitzak bertan eskuragarri dagoen materialetako bat deskargatu beharko du. Materialak ezberdinak dira pertsona bakoitzarentzat eta ez dira partekatu behar, probak elkarren laguntzarekin konpontzeko balioko baitute.



# SAIOA 2:

# GORROTO-DISKURTSOAK ETA DESINFORMAZIOA

## HELBURUAK

- Gorroto-diskurtsoen egiturazko arrazoiak, elementuak eta zein eremutan erreproduzitzen diren ulertzea.
- Gorroto-diskurtsoak identifikatzeko eta desagerrarazteko erremintak eskuratzea, errespetuzko eta berdintasunezko jarrerak sustatuaz batez ere sare sozialetan.
- Desinformazioa nola sortzen den, nola partekatzen den eta nola zabaltzen den ulertzea.
- Pentsamendu kritikoa garatzea gorroto-diskurtsoei buruzko desinformazioak ezagutzeko.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Saio honetan, aniztasunarekin, generoarekin, etniarekin edo jatorriarekin loturiko gorroto-diskurtsoak elikatzen dituzten buloak ezagutu eta aztertuko dira. Parte-hartzaileek ikasiko dute desinformazioa nola erabiltzen den gorroto-diskurtsoak elikatzeko eta nola gezurrek, behin eta berriz errepikatuta, aurreiritziak, estigmak eta diskriminazioa iraunarazten laguntzen duten.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta Interneterako sarbidea. .
- Eranskinak 1.
- Eranskinak 2.
- Eranskinak 3.
- Eranskinak 4.
- Eranskinak 5.



## JARDUERA 1.
## ZER DIRA GORROTO-DISKURTSOAK

(15 min)

Gaur egun, sare sozialetan eta, oro har, esfera digital osoan, gero eta gehiago dira haters edo trolls deiturikoak eta buloek horien gainean elikatutako gorroto-diskurtsoak, eta hori arazo larria da. Gorroto-diskurtsoak aniztasunaren aurka erasotzen dituzten edukiek osatzen dituzte, eta diskriminazio- edo indarkeria-ekintzak egitera bultzatzen dute, gorroto xenofoboak, arraza-gorrotoak, sexu-orientazioak, genero-aurreiritziak edo bestelako intolerantzia batzuek eraginda.

Nazio Batuen arabera, gorroto-diskurtsoa edozein komunikazio-mota da, "pertsona edo talde bati egindako erasoa edo hizkuntza gutxieslea edo diskriminatzailea erabiltzen duena, haiek nortzuk diren kontuan hartuta, edo, beste hitz batzuetan esanda, haien erlijio, jatorri etniko, nazionalitate, arraza, kolore, jatorri, genero edo beste nortasun-faktore baten arabera".

Online gorroto-diskurtsoak (buloak, estereotipoak zabaltzea, etsaitasuna,...) gorroto-delitu bilaka daitezke (erasoa, lapurreta, diskriminazioa zerbitzu bat ematerakoan,...), Zigor Kodearen 510. artikuluan eta Estatuko Fiskaltza Nagusiak maiatzaren 14an emandako 7/2019 Zirkularrean jasotakoak. Delitu horiek erasotzaileak biktimaren ezaugarri jakin batzuekiko dituen aurreiritziak medio sortzen dira: azalaren kolorea, erlijioa, sexu-orientazioa, jatorri nazionala, e.a.

Gorroto-diskurtso mota nagusi bakoitza adibideekin landuko dugu. Azpimarratu behar da gorroto-diskurtsoa hedabide eta sare sozial ezberdinetan dagoela eta askotan pertsona berak jasan dezakeela arrazoi ezberdinengatik.

Klasea 8 taldetan zatituko da, eta bakoitzari albiste edo mezu bat emango zaio (Eranskina 1) ondorengo galderak erantzun ditzan:

1. Gorro-diskurtsoari dagokion mezu bat da? Zer-nolako gorroto-diskurtsoa da?
2. Zure ustez, zer-nolako ondorioak izan ditzake mezu-mota horrek biktimentzat?
3. Zer-nolako sentimenduak/pentsamenduak izan dituzu argitalpen hau irakurtzean?
4. Zure ustez, era horretako mezuak salatu egin behar dira? Sareak salatzeko kanalaren bat eskaintzen du? Era horretako mezuak gerarazteko beste modurik bururatzen zaizu?

## JARDUERA 2.
## GORROTO-DISKURTSOETATIK GORROTO-DELITUETARA

(10 min)

Gorrotoaren Iceberga aurkeztuko dugu **(Eranskina 2)**. "Gorrotoaren iceberga" infografiak gorroto-diskurtsoak dituen aurpegi ugari irudikatzen ditu.

Hezitzaileek gazteei eska diezaiekete sare sozialetan eta baita beste egoera batzuetan ere identifikatzen dituzten gorroto-diskurtsoen adibideak aipatzeko. Eztabaidan zehar, garrantzitsua da azpimarratzea gorroto-diskurtsoak gorroto-krimenen aurretik egoten direla.

Gorroto-diskurtsoak gorroto-delituen edo–krimenen aurretik daude: icebergaren oinarrian, ikusezin eginda, estigmatizatu eta diskriminatzen duten txantxetan, memeetan eta txisteetan. Aurreiritziak, estereotipoak, gizarte-bazterketa eta diskriminazioa ere gordeta daude diskurtsoetan ohiko praktiketan. Gorroto-diskurtsoa gorroto-delitu, icebergaren punta, izatera iritsi daiteke, talde baten edo aipatu kolektiboetako pertsona baten kontra indarkeria, intimidazio, etsaitasun edo diskriminaziozko ekintzak bultzatu nahi direnean.







GAZTEEKIN PARTEKATZEKO INFORMAZIOA:

# NOLA SORTZEN ETA BIRALIZATZEN DIRA GORROTO-DISKURTSOAK?

Gorroto-diskurtsoek **helburu ugari** izan ditzakete:isilaraztea, umiliatzea, izutzea, deshumizatzea, jazartzea, erasotzea, indarkeria bultzatzea, estereotipo negatiboak hedatzea edo talde jakin bat estigmatizatzea, besteak beste. Ondorioak ere askotarikoak dira eta maila pertsonalean (atsekabe psikologikoan) eta gizarte mailan (adibidez, biktimek beren askatasuna mugatzen duten kasuetan gorrotoa jasateko beldurrez) ikusten dira.

**Ondorioak** ere askotarikoak dira, eta maila pertsonalean (sufrimendu psikologikoan) eta sozialean (adibidez, biktimek beren askatasuna mugatzen dutenean, gorrotoaren eraginpean egoteko beldurragatik) ikusten dira. Gorrotoa **aldi berean transmititzen eta eragiten da,** esfera digitalaren barruan nahiz kanpoan. Online eran, gorrotoa **ikusgarriagoa** eta ohikoagoa da gogorrotoaren **egileek** izan dezaketen **anonimotasunarengatik** eta mugikorrek norberak **edukia sortzeko eta hedatzeko eskaintzen duten abiadurarengatik.** Horrez gain, **online** esferaren barruan, erabiltzaile askok **komunitateak** sortzen dituzte, eta horiek haien ikuspuntuak indartu eta **gorroto-diskurtsoak elikatzen dituzte. Offline giroan,** gorrotoa **eremu murritzago eta erradikalizatuagoetara** baztertuta geratzen zen.

Ondorioz, gorroto-diskurtsoak ugaritu egin dira online azken urteetan. Askotan zaila izaten da horiek identifikatzea, emozio eta balio askorekin mozorrotuta egoten direlako; esate baterako, nazionalismoa edo tradizioen defentsa. Hala ere, ia denek **erantzun emozionala bilatzen dute eta** gizartean eragina duten **jarrera negatiboak sortzen dituzte,** aurreiritziak pizteagatik eta gorrotoa eta diskriminazioa "zabaltzeagatik".

Gehien erabiltzen den sentimenduetako bat **beldurra** da; **aurreiritzi eta estereotipo negatiboen** bitartez, "beste batzuk" eraikitzen dira, eta norberaren interesen aurkako mehatxu moduan identifikatzen da. Modu horretan, **kolektibo batzuk erabiltzen dira desberdintasunak eta egiturazko krisiak justifikatzeko.** Adibidez: "kalean bizi diren pertsonak arriskutsuak dira", "atzerritarrak guri lana kentzera etortzen dira", "MENEK (bakarrik dauden adingabe atzerritarrak) segurtasun-eza sortzen dute"... "Gu" eta "besteen" artean distantzia artifiziala sortzea eta "bestea" erasotzea arazo politikoak eta ekonomikoak sinplifikatzeko eta "etsai" bat aurkezteko modu bat da, etsai horren aurka borrokatzeko.

**Kultura eta tradizioak** defendatzea **beste argudio bat da, eta horrek gorroto-diskurtsoak elikatzen ditu gutxiengo erlijiosoen, atzerritarren eta arraza-aitzakikoen aurka edo sexu-orientazio eta/edo genero-identitatearen** forma ezberdinen aurka. Garrantzitsua da gogoratzea kultura bat bera ere ez dela aldaezina, baizik eta horiek aldatu egiten direla historian zehar. **Kultura kontzeptu zabala eta zeharkakoa da,** eta jatorri nazionala edo etnikoa kontuan hartzeaz gain, generoa, sexu-orientazioa eta genero-identitatea, erlijioa, eta abar bezalako beste kontzeptu batzuei eragiten die. Kultur aniztasunaren barnean bizitzeak eta kulturartekotasuna praktikatzeak esan nahi du **kulturen arteko harreman erreziprokoa eraikitzea eta desberdintasuna onartzea.**

## HEZITZAILE GISA, ONDORENGOAK GOGOAN IZAN BEHAR DITUGU:

- **Kontuz geure aurreiritziekin:** zalantzan jarri beti zure ideiak. Bilatu aurrez sortuta dituzun zure ideiak berriro pentsatzen laguntzeko kultura-adierazpideak (musikak, pelikulak, dokumentalak).
- **Kulturartekotasuna landu dezagun.** Kulturartekotasuna kulturen artean nahita ezartzen den harreman-mota bat da, eta haien artean elkarrizketa eta topaketa bultzatzen ditu, dagozkien balioak eta bizitzeko moduak errespetatuta eta elkarri onartuta.
- **Testuingurua garrantzitsua da edozein informazio ulertzeko.** Ongi azter ditzagun gure informazio-iturriak eta beti egiaztatu. Bitartekoek forma ematen diote errealitateari.
- **Gorrotoak ez du ezer konpontzen,** eta are gutxiago krisi ekonomikoak edo bestelako egiturazko arazoak. Ez fidatu inoiz arazo handientzako irtenbide errazez, batez ere emozioak eta sentimendu negatiboak erabiltzen dituztenez.



**Informazioa osatu ahal izango dugu**
**Nola saihestu gorroto-diskurtsoak (Eranskina 5)**

## JARDUERA 3.
## DESINFORMAZIOA IDENTIFIKATZEA

(10 min)

Jarduera ondorengo bideoa ikusiz hasiko dugu




KLIKATU HEMEN

Ikusi ondoren, eztabaida bat egingo da gazteen artean desinformazioaren arrazoi nagusiei buruz.

Zeintzuk dira funtsezko elementuak eduki faltsuak identifikatzeko?

- **Hizkuntza. Buloen hizkuntza ia beti sentsazionalista izango da gure arreta erakartzeko eta zuzenean gure emozioetara jotzeko (beldurra eta haserrea dira gustukoenak).**
- **Ebidentziak. Bulo gehienak kontakizunetan oinarritzen dira, eta inoiz ez dute froga, esteka edo datu zehatzak bezalako ebidentziarik ematen.**
- **Iturriak. Eta ez espero eduki faltsuek informazioa zein iturritatik atera duten adieraztea, zeren iturririk ez dago edo inork ez ditu ezagutzen.**

Desinformazioa hainbat formatutan agertzen da; hala nola, memeak, WhatsApp kateak, sare sozialetako irudiak eta bideoak, audioak, pantaila-argazkiak,... Batzuetan, buloa albiste moduan mozorrotzen da, kazetaritza-artikulu baten formatua kopiatuz edo azterketa zientifiko baten antzera aurkeztuz. Irudien argazkiak oso erraz partekatzen dira, eta era guztietako edukiak mugitzen dituzte. Funtsezkoa da ulertzea desinformazioa "FAKE NEWS" deiturikoetatik (hau da, albiste-itxura duten materialak, baina eduki faltsua dutenak) askoz haratago doala, eta hainbat bitartekoren bidez irits dakigukeela eta ia edozein forma izan dezakeela.

Zer-nolako eduki faltsuak jaso ohi dituzte gehien? Sare sozialetan berriki ikusi dituzten buloen adibideak eskatuko zaizkie.

GAZTEEKIN PARTEKATZEKO INFORMAZIOA:

# ZERGATIK EZ DA EMATEN INFORMAZIOA?

Askotan, gorroto-diskurtsoek estrategia desinformatzaileak erabiltzen dituzte; hala nola, datu estatistikoak gutxiegi aurkeztea, testu-aipuak testuingurutik ateratzea edo zuzenean edukia artifizialki sortzea eta argitaratzea. **Eranskina 3**.

Batzuetan, etekin ekonomikoak lortzeko desinformatzen da; beste batzuetan, gatazka ideologiko batean eragiteko; beste kasu batzuetan, gaiztakeria hutsagatik edo kaosa ereiteko. Maldita.es taldeak identifikatutako motibazio ohikoenak hauek dira:

1

## Interes ekonomikoa

Itzulera ekonomikoa klik eginda (bulo edo titular engainagarriak, bisita edo hedapenaren bitartez publizitate-sarrerak sortzeko helburua dutenak). Beste hitz batzuetan esanda: orrialde jakin batera sarraraztea, bertara bisitak sortuz eta/edo publizitatea bistaratuz.

2

## Interes ideologikoa

Errealitateari buruz dugun pertzepzioa aldatzen saiatzen dira, gertaera desitxuratuak edo zuzenean faltsuak direnak aurkeztuaz, ideologia jakin bat babesteko gure aurretiko jarrera bultzatuta. Esate baterako, migrazioei buruzko desinformazioa.

3

## Kaosa sortzeko edo troleatzekointeresa

Motibazioa edo onura identifikatzea/definitzea lortzen ez dugun eta, itxuraz, kaosa bultzatu besterik nahi ez duten buloak. Denborarekin, hedabideetatik eta iturri ofizialetatik datorkigun guztiaz mesfidatzea eragin dezakete. "Desinformazioaren 10 pertsonaia" infografía bistaratzea iradokitzen dugu " **(Eranskina 3)**.

## JARDUERA 4.
## BULOEN IKERKETA

(15 min)

Gazteen artean gorroto-diskurtsoak sustatzen dituzten buloen bi adibide banatuko dituzte hezitzaileek (**Eranskina 4**) :

### Kasua 1




: Bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako laguntzak

Gezurtatua

### Kasua 2




Emakumeen aldarrikapenak desakreditatzea.

Gezurtatua

Gazte bakoitzak minutu batzuk izango ditu banakako pentsamendu-errutina bat egiteko, galdera hauek aintzat hartuta:

1. Buloa da? Zergatik usted ut buloa dela edo ez dela?
2. Zer esan dezaket horren formatuari, hizkuntzari eta gaiari buruz?
3. Zer sentitzen dut irakurtzean?

Erantzunak bateratu eta gero, talde bakoitzak irudiaren alderantzizko bilaketa egingo du. Lehendabizi, mezuaren edo argitalpenaren kopia bat gorde behar da ordenagailuan irudi gisa. Irudia bilatzaile batera igoko dugu (adibidez, https://images.google.com/) eta alderantzizko bilaketa egingo dugu: bilatzaileak argazki bera edo beste antzeko batzuk aurkituko ditu. Halaber, argazkiaren URL-a identifikatuaz egin dezakegu.

Hemen, bideo bat kontsulta daiteke buloak arakatzeko alderantzizko bilaketa-prozesua urratsez urrats nola egin jakiteko:

Saioa amaitzeko, laburpen gisa, gazteekin **Eranskina 5** partekatuko da.

KLIKATU HEMEN

## GEHIAGO SAKONTZEKO JARDUERA OSAGARRIA

(50 min)

**EGIA ALA GEZURRA? Coronavirus Edition** urtetik gorako pertsonentzako jolas hezitzailea da, Pandemonium jolasean oinarritua; Stanford-eko Unibertsitateak garatu du, eta helburua da jokalariek informazio-albisteak eta desinformazioarenak bereizten ikastea koronabirusaren pandemiaren eremuan.

Jolasa 5 eta 9 lagun arteko taldeentzat pentsatu da, eta partida bakoitza 30 minutukoa da. Jokalari bat narratzailea izango da, eta jolasaren fase ezberdinei bidea emango die, besteekin batera jolasteaz gain. Bi taldetan banatuko dira; horrela, batzuek "onak" izan daitezke, informazio-albisteak eta desinformazioa bereizten edo gezurrak aurkitzen ahaleginduko direnak, edo "gaiztoak", faltsukeriak zabaldu eta irakurleak nahasi nahi dituztenak.

Jolasaren helburua desinformazioa aurkitzea eta horren gainean ohartaraztea da. Hainbat txandatan, "onak" direnek desinformazioa geraratzea lortzen badute, irabazi egingo dute, eta hori detektatzen ez badute eta egiazko informazio bezala geratzen bada, "gaiztoek" irabaziko dute.

**Hemen deskargatu:**

KLIKATU HEMEN

VERDAD
O BULO
Coronavirus Edition



# BLOKEA II

## Narratiba Berriak Eraikitzea

# SAOIA 3:
# ZER DIRA NARRATIBA BERRIAK

## HELBURUAK

- Narratiba berriak zer diren ulertzea eta gorroto-diskurtsoak ez zabaltzen nola laguntzen diguten ikustea.
- Narratiba berriak ikertzea adibideen bitartez.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Saio honetan, bi jarduera egitea proposatzen dugu gazteek komunikatzeko modu berria lor dezaten, guztion onerako mezu positiboak, sortzaileak eta eraldatzaileak erabilita. Lehen jardueran, narratiba berriak sortzen eta komunikazio hori positibotik eta integratzailetik sustatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dizkiguten proiektuen benetako adibideak agertuko ditugu. Bigarren jardueran, gazteek aldatzeko beren ekintza-proposamena diseinatzen hasiko dira, hurrengo saioetan landuko dituzten gaiak aukeratuaz.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta Interneterako sarbidea. .
- Eranskinak 6
- Eranskinak 7

## JARDUERA 1.
## NARRATIBA BERRIEN ANALISIA

(30 min)

Gazteak lau taldetan banatuko dituzte hezitzaileek. Talde bakoitzak narratiba berrien adibideak aztertuko ditu. Azterketaren eta eztabaidaren bidez, 6. Eranskina bete eta klase osoari bizkor aurkeztuko diote.




KLIKATU HEMEN

## NARRATIBA BERRIETAN OINARRITUTAKO PROIEKTUAK:

### 1. NOLESDESCASITO:

NolesdesCasitok sareetan ultra gorrotoa geldiarazteko estrategiak sustatzen ditu. Proiektuak web orrialde bat du, eta batez ere Twitterren aktibo dago. Egileek infografiak eta aholku oso onak argitaratzen dituzte gorrotoa geldiarazteko, narratiba berriak erabiliaz.

**ERANTZUNAK:**

- Gai nagusia: Ultraeskuindarren gorrotoa geldiaraztea.
- Xede publikoa: Twitter/Internet erabiltzen dituzten gazteak/helduak.
- Gaiaren inguruan zer-nolako estereotipoak desmuntatzen ahalegintzen dira? Sarean gorroto-diskurtsoak ez zabaltzen irakastera bideratuta daude eta sare sozialak bestelako narratiba batzuk argitaratzeko erabiltzera, modu positiboan komunikatuta.
- Zer-nolako multimedia estrategiak erabiltzen dituzte? Infografiak.
- Zein da komunikazioaren tonua? Informala.

KLIKATU HEMEN

## 2. USERA ANTIRUMORES

Usera Antirumores errespetuzko diskurtso partekatua sortzeko eta bizikidetza eta gizarte-kohesioa hobetzen laguntzeko kanpaina bat da. Usera Madrilgo auzo bat da, eta bertan bizi dira hiriburuan dauden txinatar gehienak; beraz, Madrilgo Chinatown bezala ezagutzen da.

**ERANTZUNAK:**

- Gai nagusia: topiko arrazistak eta xenofoboak desmuntatzea.
- Xede-publikoa: Userako (Madril) bizilagunak/proiektuaren orrialdea ezagutzen duten internautak. Gazteak eta helduak.
- Gaiaren inguruan zer-nolako estereotipoak desmuntatzen ahalegintzen dira? Etorkinei buruzko zurrumurruak desmuntatzera bideratuta daude (batez ere Txinatik datozen atzerritarrak).
- Zer-nolako multimedia estrategiak erabiltzen dituzte? Web orrialdea, bideoak, glosarioa eta sare sozialetako profilak.
- Zein da komunikazioaren tonua? Formala.

KLIKATU HEMEN

## 3. SAVE A HATER:

Save a hater ACCEMen ekimen bat da, eta tresnak, informazioa, bideoak eta estekak eskaintzen ditu arrazakeriari, xenofobiari, misoginiari, homofobiari eta eduki faltsuak hedatzeari aurre egiteko.

**ERANTZUNAK:**

- Gai nagusia: sare sozialetan gorrotoa identifikatzeko eta haterrak "salbatzeko" kanpaina.
- Xede-publikoa: gazteak eta helduak eta sare sozialen erabiltzaileak.
- Gaiaren inguruan zer-nolako estereotipoak desmuntatzen ahalegintzen dira? Haterrak nortzuk diren identifikatzera eta haien diskurtsoak identifikatzeko eta desmuntatzeko modurik onena erakustera bideratuta daude.
- Zer-nolako multimedia estrategiak erabiltzen dituzte? Memeak, biñetak, stickerrak, web orrialdea, bideoak eta sare sozialetako profilak, besteak beste.
- Zein da komunikazioaren tonua? Informala.

KLIKATU HEMEN




## 4. MAD4YU:

Yu txinatar jatorriko edukia duen produkzio-etxea da, eta urteak daramatza Espainian bizitzen. Gazteak hainbat sare sozial erabiltzen ditu txinatarren aurkako topikoak eta diskurtso xenofoboak salatzeko.

**ERANTZUNAK:**

- Gai nagusia: Txinako migratzaileekiko topiko arrazistak eta xenofoboak desmuntatzea.
- Xede-publikoa: sare sozialak erabiltzen dituzten gazteak (batez ere TikTok eta YouTube).
- Gaiaren inguruan zer-nolako estereotipoak desmuntatzen ahalegintzen dira? Txinako etorkinei buruzko zurrumurruak desmuntatzera bideratuta dago.
- Zer-nolako multimedia estrategiak erabiltzen dituzte? Sare sozialak.
- Zein da komunikazioaren tonua? Informala.

KLIKATU HEMEN

## JARDUERA 2.
## ZEIN GORROTO-DISKURTSO LANDU NAHI DUGU?

(20 min)

Behin gazteek jakinda gorroto-diskurtsoak prebeni daitezkeela, beren ekintza egiteko unea iritsi da, horiek indargabetzeko eta haien hurbileneko inguruneak eraldatzeko.

Lehenik eta behin, eta ekintzak beren interesetatik abia daitezen, sare sozialetako gorroto-diskurtsoei buruzko ikerketa txiki bat egingo dute. Hezitzaileek taldeak osatuko dituzte gazteek beren ekimenak burutzeko. Talde bakoitzeko kide-kopurua taldearen ezaugarrien araberakoa izango da, baina lauzpabost pertsonako taldeak sortzea iradokitzen da. Taldeak antolatzeko, hainbat faktore hartu behar dira kontuan: mailak, ikasteko estiloak eta antzekotasunak.

Talde bakoitzak erabakiko du narratiba berriarekin zer gai landuko duten. Gogoratu gorroto-diskurtso motak hauek direla: matxismoa, arrazakeria, xenofobia, LGTBIQfobia, aporofobia, kapazitismoa, antigitanismoa, islamofobia; eta horiek intersekzionatu daitezkeela (adibidez, matxismoa eta arrazakeria mezu berean ager daitezke, batez ere arrazakeriaren mendeko emakumeei eraginez).

Ikertzen hasteko eta komunikazio-kanpainen gaia erabakitzeko, ondorengo galderak aurkezten dira:

1. Zer-nolako gorroto-diskurtsoak ikusi ditut azkenaldian sareetan (edo komunikabideetan)? Zeinek eragin dit gehien?
2. Zein gai interesatzen zait gehien? Nire ustez, zein da garrantzitsuena gazteentzat?

Hautatutako gaiaren inguruan fitxa hau beteko dute: "Nire aldaketa-ekintzaren gaia hautatzea" (**Eranskina 7**) etxean ere amaitu dezakete, beharrezkoa izanez gero.

Hezitzaileak gaia hautatzeko fitxa bakoitza jasoko du, talde bakoitzaren proposamena bideragarria den aztertzeko. Berdin da talde ezberdinek gai bera hautatu badute edo haien ekimenak jarduera eta helburuekin bat badatoz; orduan, talde horiek elkartzea gomendatzen da, ahaleginak batu eta elkarrekin ekimena egiteko.

# SAIOA 4:
# ALDAKETA-EKINTZAK PLANIFIKATZEA

## HELBURUAK

- Ekimen bat egitea narratiba berrien esparruan.
- Aniztasuna ulertzea eta hori sustatzeko konpromiso soziala sustatzea.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Saio honetan, gazteek aldaketa-ekintzaren egitura diseinatuko dute, helburuak eta hori burutzeko jarduerak eta ekintzak ezarriaz; halaber, erantzukizunak eta zereginak banatuko dituzte. Taldean lan egitea eta sormena indartuko dira.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta Interneterako sarbidea.
- Eranskinak 8.
- Eranskinak 9.
- Eranskinak 10.

## JARDUERA 1.
## ALDAKETA-EKINTZAREN EGITURA

(30 min)

Saioa hasteko, **Eranskina 8**, proiektatu edo banatuko dugu, narratiba berri bat egiteko gakoak gogoratzeko. Plangintzarekin hasi baino lehen, gazteek arretaz irakurriko dute **Eranskina 9**, eta zalantzak hezitzaileei galdetu ahal izango dizkiete.

Aurreko saioetan landutakoa kontuan hartuta, gorroto-diskurtsoak ezagutu ondoren eta narratiba berrien bidez komunikatuta, taldeak aldaketa-ekintza bat planifikatu beharko du aurreko saioan hautaturiko gorroto-diskurtsoa prebenitzea lantzeko. Ekintzak bi une izango ditu:

1. Talde bakoitzak aurrez aurreko saio bat programatu beharko du beren ekintza inguruneko beste gazte batzuei aurkezteko, batez ere 8 eta 14 urte artekoei (beste maila batzuk, elkarteko taldeak edo plataforma sozialeko programak).

2. Aldaketa-ekintza Sare Sozialen bitartez hedatzea: taldeek edukiak sortuko dituzte beren aldaketa-ekintza sare sozialetan zabaltzeko.



Ekintza planifikatzen laguntzeko, taldeak **Eranskina 10**, beteko du; hau da, helburuak, ekintzak eta emaitzak biltzen dituena beren aldaketa-ekintzak burutzeko. Baliagarria izan daiteke aurreko saioan betetako **Eranskina 7** eskura izatea.

## JARDUERA 2.
## ERANTZUKIZUNAK ETA ZEREGINAK BANATZEA

(20 min)

Ekimena arrakastatsua izan dadin eta guztiek funtzio aktiboa izan dezaten, erantzukizunak banatuko dira. Jarraian aipatzen diren erantzukizunak talde bakoitzak egoki deritzonaren eta taldeko kide-kopuruaren arabera banatu ahal izango ditu:

| ROLA | ARDURAK |
|---|---|
| Ikerketa | ▶ Informazioa biltzea eta iturriak egiaztatzea.<br>▶ Argumentarioa egitea. |
| Diseinua eta irudia | ▶ Ekintza aurkezteko materialak prestatzea.<br>▶ Taldearen irudia eta identitatea sortzea (hastag, eslogana, logoa, koloreak...) |
| Hedapena | ▶ Sare sozialetarako edukiak sortzea.<br>▶ Ekimena zabaltzea eta Sare Sozialak kudeatzea. |
| Logistika | ▶ Sortutako dokumentuak idaztea eta biltzea (ibilbide honetako eranskinak barne).<br>▶ Prozesuaren argazkiak eta bideoak egitea.<br>▶ Materiala eta ekimena aurkezteko espazioak kudeatzea. |
| Koordinazioa | ▶ Egutegia ezartzea gainerako kideekin batera.<br>▶ Talde bakoitzak erantzukizunak betetzea zaintzea.<br>▶ Beste gazte-taldeekin harremanetan egotea.<br>▶ Hezitzaileekin koordinatzea. |
| Erreplika beste gazte batzuekin | ▶ Saioaren gidoia garatzea.<br>▶ Ekintza aurkeztea. |

Zereginak planifikatzeko, Kanban erako egituraren bidez lan egitea proposatzen dugu. Tresna horrek, modu oso bisualean, egiteko dauden zereginak, egiten ari direnak eta egin direnak argi izateko aukera ematen du, bai eta horiek gauzatzeko arduradunak ere. Hori etengabeko indar positiboa da gazteentzat, gazteek beren aurrerapenak erakusten dituztelako eta lana garatzen doazen heinean ebaluatzen dutelako.

**TRESNA:**

KLIKATU HEMEN

Berdin da gure ekintza-taulari nolako formatua ematen diogun; garrantzitsuena da gazteek maiz egiaztatu ahal izatea ekimenaren aurrerapena, modu digitalean edota analogikoki paper jarraitu, arbel magentiko edo antzekoren baten bidez:

**ALDAKETA-EKINTZA:**

| ZEREGINEN ZERRENDA | AZKEN EGUNA | ARDURADUNA | EGITEKO | EGITEN | AMAITUTA |
|---|---|---|---|---|---|
| Zeregina 1 | | | | | |
| Zeregina 2 | | | | | |
| Zeregina 3 | | | | | |





# BLOKEA III

## Kanpainen ezarpena

# SAIOA 5:

# EKIMENA PRESTATZEA ETA INPLEMENTATZEA

## HELBURUAK

- Narratiba berriak biderkatzeko eta hedatzeko eta gorroto-diskurtsoen aurka errespetua eta aniztasuna sustatzeko gazteek duten paper protagonista indartzea.
- Gazteak gidatzea aldaketa-ekintzak ezartzerakoan.
- Beste gazteak sentsibilizatzea gorroto-diskurtsoak prebenitzeko.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Saio honetan, gazteek gune bat izango dute beren ekimenak lantzen hasteko. 1. jarduera gutxienez 50 minutukoa izango da, talde bakoitzak bere aldaketa-ekintza prestatzeko behar duen denboraren arabera; 2. jarduera, berriz, talde bakoitzak bere ekimena ezartzeko planifikatutakoaren araberakoa izango da.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta Interneterako sarbidea.
- Papera eta boligrafoa.
- Aldaketa-ekintza egiteko planifikatutako materialak.
- Eranskina 11.



## JARDUERA 1.
## ABIAN JARTZEA

(50 min)

Aurreko saioan, zereginak eta arduradunak egituratu ondoren, pertsona bakoitza berari esleitutako funtzioak garatzen hasiko da. Hainbat pertsonak rol bera badute, bilerak egingo dituzte lan-taldeka, esleitutako lanak betetzeko.

Aurreko saioan, zereginak eta arduradunak egituratu ondoren, pertsona bakoitza berari esleitutako funtzioak garatzen hasiko da. Hainbat pertsonak rol bera badute, bilerak egingo dituzte lan-taldeka, esleitutako lanak betetzeko. Eranskineko 11 plantilla har daiteke: Sare Sozialen programazioa); halaber, data eta ondoren sentsibilizazio-saioa egingo duten taldearen ezaugarriak egiaztatu behar dituzte.

Aurkezpen bat egitea gomendatzen dugu, esku hartzerakoan euskarri izan dadin eta aldaketa-ekintzaren helburu orokorrak eta sortze-prozesua nolakoa izan den adierazteko.

Aurkezpen horiek egiteko, PowerPoint bezalako tresnak eta Canva edo Genial.lybezalako beste tresna interaktiboagoak badaude.

**Canva**

KLIKATU HEMEN

**Genial.ly**

KLIKATU HEMEN

Era berean, esku-hartze presentzialerako, dinamika edo jarduera praktikoren bat sartzea aholkatzen dugu, sare sozialetan aldaketa-ekintzan jorratzen ari diren edukiak lantzearren.



## JARDUERA 2.
## INPLEMENTATZEA

Iraupen aldakorra egin beharreko ekintzen arabera

Ekintzak denboraz luzeak badira, taldeekin aldizka (adibidez, astean behin) bilerak egitea gomendatzen da, segimendua egin, egutegia errepasatu eta zereginak aurreratzeko. Egutegia ezartzerakoan, garrantzitsua da sareetan ekintzaren denborazkotasuna ere kontuan izatea.

Ebidentzia horietako batzuk hauek izan daitezke:

- Talde bakoitzaren Kanban jada amaituta
- Sare Sozialean kanpainaren gunea / esteka.
- Argitalpenen egutegia.
- Ekimenaren sortze-prozesuaren argazkiak.
- Beste mailatan edo beste taldeekin egiten diren saio presentzialen argazkiak (klasearen atzetik egindakoak parte-hartzaileen **idatzizko baimenarekin).**
- 7 eta 10 formakuntza ibilbidetik.
- Aldaketa-ekintzaren plangintzan edo ezarpenean taldeko pertsona guztiek ikasitakoa jasotzen duen bideoa edo audioa.

Ebidentzia horiek guztiak eta proiektua egin izana egiaztatzeko taldeak aurkez dezakeen beste edozein "aldaketa-ekintzaren sistematizazioa" fitxari gehituko zaizkio; fitxa hori hezitzaileek beteko dute online inprimakiaren bidez:

KLIKATU HEMEN

# SAIOA 6:
# EBALUAZIOA

## HELBURUAK

- Ibilbidearen ikaskuntza-prozesuaren banakako eta taldeko ebaluazioa egitea.

## DESKRIBAPEN LABURRA

Prestakuntza-ibilbidea amaitzean, funtsezkoa da indartuak izan diren ikaskuntzak eta prozesuak ez ezik, jarrera-aldaketak ere banaka ebaluatzea. Horretarako, batetik, banakako ebaluziorako galdetegia proposatzen dugu, prozesuaren zenbait gako alderatu ahal izateko; eta, bestetik, talde-dinamika baten bidez, denbora-lerro bat eta dinamika bat bateratzea, prozesuan parte hartu dutenek sentitu dituzten emozioak, ikaskuntzak, balioak eta hobekuntzak adierazi ahal izateko.

## MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta Interneterako sarbidea.
- **Eranskina 12.**



## JARDUERA 1.
## BANAKAKO EBALUAZIOA

(15 min)

Lehenik eta behin, QR kode honetako galdetegia egingo da banaka.

Garrantzitsua da parte-hartzaile bakoitzak banaka egitea eta galdera horiek erantzuteko denbora hartzea; izan ere, inpaktua eta aldaketa pertsonalak eta ikasitakoak ebaluatzen lagunduko digute.

Galdetegi hau erantzuteko 15 eta 20 minutu arteko denbora beharko da, gutxi gorabehera.

KLIKATU HEMEN



## JARDUERA 2.
## “MAHAIA JARRI” IBILBIDEAREN TALDEKO EBALUAZIOA

(35 min)

Banako ebaluazioa amaitzean, ibilbidearen prozesuaren taldeko ebaluazioa egitea proposatzen da. Horretarako, ibilbideko item nabarmenenen denbora-lerroa eta balioak, ikaskuntzak eta emozioak bateratzeko aukera ematen duen teknika biltzen dituen dinamika proposatzen dugu. Ebaluazio hau egiteko, 4 espazio behar ditugu gelan, eta horiek lanerako mahai bihurtuko dira; mahai horietan, paper jarraitua jarriko dugu, mahai-zapi gisa.

Talde handia 4 azpitaldetan banatuko da, eta horietako bakoitza mahaitik mahaira igaroko da, proposaturiko item bakoitza ebaluatzeko. Ebaluazioa egiteko mahai bakoitzean egoteko denbora 5 minutukoa da; beraz, dinamika hau, gutxi gorabehera, 20 eta 30 minutu artekoa izango da.

Mahai bakoitzean ebaluatu beharreko galderak eta **Eranskinean 12** biltzen dira.



## MAHAIA 1:

**ROOM IHESA:**
**MUNDUA ALDERANTZIZ**

Mahai honetan honako hau ebaluatuko da: **“Beste aldean sentitu ahal izan nuena hau izan zen:”** emojien bidez, ibilbidea hasi zuten unea escape room-ekin. Taldeko pertsona bakoitzak, eranskinean eskainitako emojien zerrendatik, bate do bi jarriko ditu, escape room –ean parte hartzean sortutako emozioak irudikatzeko.

**Beste aldean sentitu nuena zera izan zen...**

## MAHAIA 2:

**BULOAK DESMUNTATZEN**

Mahai honetan taldeek jasotzen diren balioak jaso beharko dituzte. Indartu egin dituzte 2. eta 3. saioei eta haien jarduerei dagokienez Galderari erantzunez:

**Zer balio indartu dituzu? Horretarako, agertzen den zerrenda erabiliko da. 12 Eranskinean edo taldeak proposa ditzakeen beste batzuetan.**

## MAHAIA 3:

**GURE ALDAKETA-EKINTZA ERAIKITZEN**

Mahai horretan ebaluatuko da eskola-jarduerekin zerikusia duen oro. 4 saioa, non elkarrekin diseinatu duten Martxan jarri dute. Saio horiek prestatzeko denbora suposatu dute, Logistika, espazioak eta zereginen banaketa diseinatu, antolatu.
Zer ikasi duzu?

**12 eranskinean, ikas daitezkeen ikaskuntzen zerrenda bat proposatzen da, Erantzunak erraztea.**
**Erantzunak erraztea.**

## MAHAIA 4:

**GURE ALDAKETA-EKINTZA**

Mahai honetan prestakuntza eta errealizazioa ebaluatzean zentratzen gara.Gauzatu den aldaketa-ekintzaz. Bat da Zati garrantzitsua, taldea nola hautematen duen jakin nahi dugulako Inpaktua eta eraldaketa-maila, eraikuntzatik eta Bere ekintza gauzatzea. Mahai honetan, paper jarraituaren barruan, Arrazoitu galdera hau:

**Nola uste duzue aldatu duzuela errealitatea? Hau jarriko da: Linterna baten irudia (12. eranskina). Bere jarduera ezertako eskala batean aldatzea, gutxi, zerbait, asko, Nahikoa. Talde bakoitzak eskala horietako bat markatzen du eta Zergatik aukeratu duzu aukera hori?**


The New York Times
INTERNATIONAL EDITION
CUTE BUT COSTLY
JAPAN'S MASCOT
MANIA DIES DOWN
Coronavirus
and the fear
of recession
Eswar S. Prasad

# ERANSKINAK

# ERANSKINA 1:
# GORROTO-DISKURTSO MOTAK

Aurrean ikusi moduan, gorroto-diskurtsoak aurreiritziek zenbait kolektiboren aurka eragindako eraso diskriminatzaileak dira. Hona hemen gorroto-diskurtso mota ohikoenak:

- **Arrazakeria:** arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea edo jatorri nazionala edo etnikoa dela-eta pertsona edo pertsona-talde batekiko mespretxua justifikatzen duen edo pertsona edo pertsona-talde baten nagusitasun-kontzeptua areagotzen duen ustea.
- **Anti-gitanismoa:** Erroma/Ijituen aurkako arrazakeriaren forma espezifikoa; arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia baten antzera definitzen da, diskriminazio historikoak elikatua.
- **Islamofobia:** islamarekiko, prozesatzen duten pertsonekiko eta haiekin loturiko guztiarekiko aurreiritzia eta/edo beldurraren forma espezifikoa.
- **Xenofobia:** beste pertsonak baztertzen, kanporatzen eta, askotan, mespretxatzen dituzten jarrerak, aurreiritziak edo jokabideak, atzerritarra edo komunitatearen, gizartearen edo herrialdearen nortasunarekiko arrotza izateagatik.
- **Aporofobia:** hitza Espainiako Adela Cortina filosofoak sortu zuen, eta pertsona pobre, behartsu edo baztertuei egiten die erreferentzia. Filosofoak dio aporofobiak elikatzen duela etorkinak eta errefuxiatuak baztertzea: ez dira baztertzen atzerritarrak izateagatik, pobreak izateagatik baizik.
- **Matxismoa:** gizona nagusi dela uste duen aurreiritzia. Gizonek emakumeekiko duten nagusitasuna.
- **LGTBIQfobia (Sexu-orientazioa eta/edo genero-identitatea):** gayak, lesbianak, bisexualak eta transexualak, transgeneroak eta intersexualak baztertzea haien sexu-orientazioarengatik.
- **Kapazitismoa:** pertsona ezinduak diskriminatzea ezindua izate hutsagatik.




K-poptop
@coreanlover
BTS son unos gays de mierda pero no puedo evitar escuchar sus canciones, es que son buenísimos hermano, me siento culpable
5:56 PM · Oct 25, 2020
4 Retweets 2 Quote Tweets 8 Likes


Tweet
En respuesta a
"Los que defienden a los gitanos es porque nunca han conocido a un gitano"
Grande Zowl.
5:48 p. m. · 20 jul. 2021 · Twitter for Android
103 Me gusta


DuardoTrill
@duardot.l.
Las mujeres utilizan las denuncias por violencia para sacar más dinero en el divorcio. Le ha pasado a amigos míos.
12:00 PM · Jun 1, 2021 · Twitter for Iphone
4 Retweets 7 Likes


Tweet de desahogo.
Me cago en el chino que se comió un pangolín semicrudo y una sopa de murciélago de entrante.
22:49 · 10/3/20 · Twitter for iPhone
7262 Retweets 27,1k Me gusta


Vos sos la mamá de Mariano? 11:51
Hola. Si.. 11:51
Me cuenta mi hija que tu hijo es discapacitado. Que no sabe hablar y tampoco hace nada en la escuela. Y que tiene algo en las piernas 11:52
Por que no lo mandas a otro lado? 11:52


SusiPaezFreiser
@Susi.PF
Hay mucha gente viviendo del cuento, de las ayudas y las paguitas, que no quiere mover un dedo.
9:34 AM · Feb 8, 2020
1 Retweet 6 Likes

**Policía Local CReal** @PLCiuda... · 1d
A las 18,30 h. aprox. hemos detenido a
conductor de un coche por delito cont
la seguridad vial, conducción temerari
allanamiento. Conducía un turismo
ajeno sin carné e intentó escapar
entrando en una morada ajena. Result
ser un menor.

6 · 6 · 37

**Pedro Recadero** @PedroRecad... · 1d
Joderrrr que pieza. Lo mejor seria
mandarlo a su país de origen.

2 · 2 · 1

Kareenn ha retwitteado

**Policía Local CReal**
@PLCiudadReal092

En respuesta a @PedroRecadero

Pues es más español que las
Lagunas de Ruidera.

**El Puntual 24H** @Puntual24H · 6 sept.
#URGENTE Asociaciones Musulmanas en Valencia pedirán al Gobierno Valenciano que NO se celebren la tradicional fiestas de Moros y Cristianos.

"NOS Ofenden"



913 · 2,4 mil · 2 mil

**Sálvese quien pueda** 🇪🇸 @Cierraelpico · 6 sept.
¿Y qué será después; la Navidad, la Semana Santa,...?

Si no les gusta **España**, ¿para qué han venido; para trincar **ayudas** y decirnos lo que podemos y no podemos hacer?

¡Al carajo!

9 · 34 · 231

**Erantzun galdera hauek:**

1. Gorroto-diskurtsoari dagokion mezua da? Zer-nolako gorroto-diskurtso mota da?

✍

2. Zure ustez, nolako ondorioak izan ditzake era horretako mezuak biktimentzat?

✍

3. Zer-nolako sentimenduak/pentsamenduak izan zenituen argitalpen hau irakurtzean?

✍

4. Zure ustez, era horretako mezuak salatu behar dira? Sareak salatzeko bideren bat eskaintzen du?

✍

# 2. ERANSKINA

# GORROTOAREN ICEBERGA



# ERANSKINA 3.
# **DESINFORMAZIOAREN 10 PERTSONAIA**



# ERANSKINA 4.

# NOLA IDENTIFIKATU BULOAK

**KASUA: BAKARRIK DAUDEN ADINGABE ATZERRITARRENTZAKO LAGUNTZAK**




**1.** Buloa al da? Zergatik uste dut buloa dela edo ez dela?

✍

**2.** Zer esan dezaket horren formatuari, hizkuntzari eta gaiari buruz?

✍

**3.** Zer sentitzen dut hori irakurtzean?

✍

**4.** Ikertu ondoren, honako hau jakin dut:

✍

## 2. KASUA: EMAKUMEEN ALDARRIKAPENAK DESAKREDITATZEA




**1.** Buloa al da? Zergatik uste dut buloa dela edo ez dela?

✍

**2.** Zer esan dezaket horren formatuari, hizkuntzari eta gaiari buruz?

✍

**3.** Zer sentitzen dut hori irakurtzean?

✍

**4.** Ikertu ondoren, honako hau jakin dut:

✍

# ERANSKINA 5.
# GORROTO-DISKURTSOAK ELIKATZEA SAIHESTU

**GOGORATU**

Jakin badakigu esfera digitalak, oro har, eta, zehazki, sare sozialek gorroto-diskurtsoak azkar zabaltzen laguntzen dutela, eta gazteek, bitarteko digital horiek asko erabiltzeagatik, eragin handiagoa izateko aukera dutela.

Hortaz, horiei aurre egiteko, beharrezkoa da zer-nolako informazioa iristen zaigun adi egotea, edukia ebaluatzea, bulo bat den egiaztatzea eta gorroto-edukia partekatzea saihestea.

- Ez idatzi edo partekatu mezu erreaktiboak eta/edo oso emozionalak ondo pentsatu gabe. Gogoratu, behin argitaratuta, mezuak ondorioak izan ditzakeela zure eta besteen bizitzan.
- Ez fidatu arazo konplexuei (adibidez, krisi ekonomikoa) irtenbide errazak ematen dizkien mezuez edo beldurrak edo amorruak eragindako erreakzio emozionalen ondorio direnez.
- Gorroto-edukia partekatu ordez (kritikatuaz bada ere), hobe da zure sareak erabiltzea ekimenak modu positiboan eta kulturartekotasuna sustatzen duten testuak edo bideoak argitaratzeko.
- Erabili zure online denboraren zati bat narratiba berriak eraikitzeko, aniztasuna argitara eman eta “gu” eta “bestearen” artean artifizialki sortutako espazioa hausteko.



# ERANSKINA 6.
# NARRATIBA BERRIEN ANALISIA

Aukeratu narratiba berriei buruzko ondorengo ekimenetako bat (azpimarratu izena), eta erantzun galderak.

**1. Nolesdescasito**

SAKATU HEMEN

NolesdesCasitok sareetan ultra gorrotoa geldiarazteko estrategiak sustatzen ditu. Proiektuak web orrialdea du eta aktibo dago batez ere Twitterren. Egileek infografiak eta aholku oso onak argitaratzen dituzte gorrotoa geldiarazteko, narratiba berriak erabilita.

**2. Usera Antirumores:**

SAKATU HEMEN

Usera Antirumores errespetuzko diskurtso partekatua sortzeko eta bizikidetza eta lurralde-kohesioa hobetzen laguntzeko kanpaina da. Usera Madrilgo auzoa da, eta bertan bizi dira hiriburuan dauden txinatar herritar gehienak; alegia, Madrilgo Chinatown bezala ezagutzen den auzoa da.

**3. Save a hater**

SAKATU HEMEN

Save a hater ACCEMen ekimen bat da, eta tresnak, informazioa, bideoak eta estekak eskaintzen ditu arrazakeriari, xenofobiari, mosoginiari, homofobiari eta eduki faltsua zabaltzeari aurre egiteko.

**4. Mad4yu**




SAKATU HEMEN

Yu txinatar jatorriko edukia duen produkzio-etxea da, eta urteak daramatza Espainian bizitzen. Gazteak hainbat sare sozial erabiltzen ditu txinatarren aurkako topikoak eta diskurtso xenofoboak salatzeko.

Zein da ekimenaren gai nagusia?

✍

Zein da horren xede-publikoa?

✍

Gaiaren inguruan zer-nolako estereotipoak desmuntatzen ahalegintzen dira?

✍

Zer-nolako multimedia-estrategiak erabiltzen dituzte (bideoak, infografiak, sare sozialetako postak)?

✍

Zein da komunikazioaren tonua (formala edo informala)?

✍

ERANSKINA 7.

# NIRE ALDAKETA-EKINTZAREN GAIA HAUTATEA

**Gehien kezkatzen nauen edo eragiten didan gorroto-diskurtso mota:**

Zergatik landu nahi dut diskurtso hau?

✍

Gure eguneroko bizimoduan, non aurkitzen ditugu mezu horiek?

✍

Kausak (Zergatik sortzen da era horretako gorroto-diskurtsoa? Nork sortzen eta zabaltzen du? Zer-nolako interesak dituzten pertsona horiek?)

✍

Ondorioak (nola eragiten die pertsona eta kolektiboei?)

✍

Zer aldatu nahi dut?

✍

Bestelakoak (testigantzak, ekimenak, e.a.)

✍

Adibideak, albisteak eta datu garrantzitsuak

✍

# ERANSKINA 8.
# NOLA ERAIKI NARRATIBA BERRI BAT

- Gogoratu ez duzula erreakzionatu behar edo ezerri erantzun behar, zure ideia propioak eta arrazonamenduak proposatu baizik.
- Irakurketa berrietara eta elkarrizketara gonbidatu.
- Proposatu giza eskubideak eta bizikidetza baketsua eta kulturartekoa defendatu nahi duten narratibak.
- Bultzatu pentsamendu kritikoa: garrantzitsua da gure sinesmenak zalantzan jartzea eta informazio eta ikaskuntza berriekin kontrastatzea.
- Erabili emozioak modu positiboan. Gorroto-diskurtsoek beldurra edo haserrea bezalako sentimenduak maneiatu ohi dituzte. Narratiba berriak eraikitzeko, sentimendu onenak dira enpatia sortzen dutenak eta gizarte berdinzaleago baten harrotasuna edo itxaropena sustatzen dutenak.



# ERANSKINA 9.
# EKINTZA BAT PERTSONA GUZTIENTZAT

Zure aldaketa-ekintza planifikatzerakoan eta edukiak diseinatu eta gure jarduerak abian jartzerakoan, zenbait ohar kontuan izan behar dira:

**Giza eskubideak eta garapena**

- Beti errespetatu pertsonen eskubideak, zuzentzen zaren haienak eta hitz egiten duzun pertsona haienak.
- Animatu beste pertsonak ere hori egitera.
- Gorroto-diskurtso bat identifikatzen duzunean, aztertu zer-nolako eskubideak urratzen ari diren.
- Modu globalean pentsatu: gogoratu pertsona guztiok gure artean konektatuta gaudela eta gure ingurunean egiten dugunak gainerako planetari eragiten diola.

**Inklusioa eta aniztasuna**

- Erabili hizkuntza egokia eta pertsona guztientzat.
- Zeure buruari galdetu ea jarduerak irisgarriak diren (lekuaren kokapena, ikuspena, e.a.) parte hartuko duten pertsona guztientzat.
- Ez erabili adierazpen arrazistak, xenofoboak, kapazitistak, LGTBIQfobikoak edota edozein kolektibo edo pertsona diskriminatzen dutenak.
- Irudikatu errealitate ezberdinak. Saihestu diskriminazioa eragin dezaketen kolektoboen irudi estereotipaturik.

**Genero-berdintasuna**

- Ez erabili adierazpen sexistak edo matxistak. .
- Ez erabili gizonen eta emakumeen rol tradizionalak.
- Erabili emakumeen errealitate espezifikoa ezagutzera ematen duten datuak, zifrak edo estatistikak.
- Kontuan izan zenbait gertaerak eta egoerak emakumeengan duten inpaktu espezifikoa.
- Ez erabili emakumeak objetibizatzen edo sexualizatzen dituzten irudiak.

**Iraunkortasuna eta ingurumena**

- Gogoratu hitz hauek: Murriztu, Berrerabili eta Birziklatu.
- Soilik erabili beharrezko materialak eta ingurumena errespetatzen dutenak.
- Ahal den neurrian, berrerabili materialak edo digital bihurtu.
- Behar bezala bildu eta birziklatu jardueretan zehar sortzen diren hondakin guztiak.
- Kritikoki pentsatu zure ekintzek ingurumenean zer-nolako ondorioak dituzten.

# ERANSKINA 10.

# ALDAKETA-EKINTZEN PLANGINTZA

Gure ekintzaren izena:

✍

Landu behar dugun gorroto-diskurtsoa:

✍

Helburuak – Zer lortu nahi dugu:

✍

Zein publikorengana zuzentzen gara (adina):

✍

Nola ikusiko dugu gure aldaketa-ekintza? Jarduerak (adibidez, bideo bat, argazkiak, rap bat, antzezlan bat, flashmob bat, podcast bat, aurkezpen bat,...).

✍

Non egingo dugu? Presentziala (nire ikastetxean, zentro sozial batean, auzoan,...): Sare Sozialak (TikTok, Instagram, Twich, YouTube):

✍

Zer komunikatuko dugu Sare Sozialetan? Eslogana, Hastag-ak, Mezu nagusiak.

✍

Noiz inplementatuko dugu? Tarteka, astean behin, hilabetean behin, aste batean ikasturtean zehar, e.a.

✍

# ERANSKINA 11.

# SARE SOZIALEN PROGRAMAZIOA

| **EDUKIAK:** | | | **SARE SOZIALAK:** | | | | **ARGITALPENA:** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| # | IRUDIA | MEZUA | TIK TOK | INSTAGRAM | TWITTER | BESTELAKOAK | EDUKIAK SORTZEA | ARDURADUNA BIZITZEKO | DATA |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

# ERANSKINA 12.

# EBALUAZIOA

## MAHAIA 1:

**ESCAPE ROOM:**
**BESTE ALDEAN**

Beste aldean entzuten nuena zen...

✍



Heart vector created by rawpixel.com

# MAHAIA 2:
## BULOAK DESMUNTATZEN

Zer-nolako balioak indartu dituzu?

✍

## GIZA BALIOAK

1. Maitasuna
2. Adiskidetasuna
3. Ona
4. Konfiantza
5. Anaitasuna
6. Ohorea
7. Zintzotasuna
8. Justizia
9. Askatasuna
10. Elkartasuna
11. Bakea
12. Errespetua
13. Erantzukizuna
14. Tolerantzia

## MAHAIA 3:
**GURE EKINTZA ERAIKITZEN**

Zein ikasgai ikasi dituzu?

✍

**IKASKUNTZEN ZERRENDA: :**

- Ikaskuntzen zerrenda:
- Gatazkak ebaztea
- Kritikoagoa izatea
- Informazioa bilatzea
- Irtenbideak bilatzea, aukerak ematea
- Iaurreiritziak identifikatzea.
- Mezu diskriminatzaileak identifikatzea
- Mezu faltsuak identifikatzea
- Nire ikuspegia ematea
- Aldaketetara egokitzea, e.a

**MAHAIA 4:**
**ZURE**
**ALDAKETA-EKINTZA**

Adierazi, zure ustez, errealitatea nola aldatu duzuen





#ChangeThings #Aldatusareak

MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN

aecid

Cooperación Española

VOLS voluntariatsolidari

BOSCO GLOBAL
ONGD SALESIANA

JÓVENES Y DESARROLLO
ONGD SALESIANA